

PLaza

» 44-45 ■ **Arte garaikidean, erreferentzia**
«Galeria gutxi arduratu da hemengo artistez»,
Moises Perez de Albeniz arte galaristen ustez.

Salaketarako forma **literarioen** bilatzailea

‘Evak hemen dirau, in memoriam’ izenburua hartuta, Eva Forest izan dute ardatz Topasketak jardunaldiek aurtengo ekitaldian, eta atzo, azken egunean, haren literatura aztertu zuten.

JUAN LUIS ZABALA
Donostia

Mundu zabaleko nahiz inguruko gizarteko injustiziak salatuz, bilaketa eta berrikuntza formala alde batera uzten ez duen literatura idatz daitekeela erakusten duten idazleatariko bat da Eva Forest (Bartzelona, 1928-Hondarribia, 2007). Horixe da atzo Donostiako Koldo Mitxelena kulturuneako areto nagusian, Aske-Alfonso Sastre erakundeak antolatutako Topasketak jardunaldien barruan, egin zen mahai-inguruan esan zirenetatik atera daitekeen ondorio nagusietako bat. Mahai-inguru horretan, Xabi Puerta moderatzaile zutela, Santiago Alba Rico, Esther Zorrozueta eta Alfonso Sastre idazleek aztertu zuten Eva Foresten literatura, aretoa entzulez beteta zegoela.

Eva Foresten literaturaz hitz egiteko, literatura zer den galdetu beharra dago, Santiago Alba Ricoren ustez. «Egun nagusi den ikuspegi kanonikoaren arabera, giza izaerari atxikita dauden eta erremediorik ez duten gaitzez arduratzen da literatura. Baina zer gertatzen da obra literario batean erremedioa duten gauzen —eta areago: erremediatu behar ditugun gauzen— salaketa planteatzen denean?». Foresten obrak, Alba Ricoren ustez, erakusten du planteamendu horrekin ere egin daitekeela balio handiko literatura. «Evak literatura egitea debekatu zion bere buruari, baina zenbat eta bere buruari gehiago debekatu hainbat literarioagoa zen».

Foresten beste obra batzuk bikainak iruditu arren —*Operación Ogro* «nobela aparta» eta *Los nuevos cubanos* «mundo berri baten agerpenari buruzko kronika ezinbestekoa» aipatu zituen adibide gisa—, torturari buruz idatzitakoak dira Alba Ricori barruak indar handienaz inarrosi dizkietenak. Torturari buruzko testuetan, «literaturaren arazo



Santiago Alba Rico, Xabi Puerta (moderatzailea), Alfonso Sastre eta Esther Zorrozueta, atzoko mahai-inguruan. JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

handi bati» egiten dio aurre Forestek, «literatura porrotera kondenatuta dagoela dirudien eremu batean» barneratuta.

«*Onintze en el país de la democracia* inoiz idatzi den eskuliburu-rik ederrena da, baina nik *Una extraña aventura* dut maiteena», esan zuen atzo Alba Ricok. Torturatutako emakume batzuen lekukotasunetan oinarrituta, Forestek «sentiberatasunaren transmisioaren arazoari» egin zion aurre *Una extraña aventura*-n.

«Estereotipoak eta eskemak oso erabilgarriak dira komunikaziorako», Alba Ricoren ustez. «Baina abstrakzio pobreak dira, ezagutzarako, mobilizaziorako eta konpromisorako balio ez dutenak. Literaturaren bidez baino ezin da lortu hori, irudimen literarioaren itzulinguru ez eufemistikoaren bidez».

Forestek torturaren inguruan idatzi dituen testuak ez dira ez «ilunak» eta ez «adoregabetzaileak», eta horrexek ematen die duten indarraren zati handi bat. «*Onintze en el país de la democracia* eta *Una extraña aventura*, torturaren amildegi izugarria deskribatzen duten liburuak izanagatik, haur ipuinak dira berez. Chesteronek haur ipuin guztiei egotzen zizkien bi lezioak erakusten dituzten haur ipuinak: lehena, badirela

ogroak; bigarrena, garai daitezkeela».

Beste zeregin eta lan batzuei lehentasuna emanik, bere fikzio lanei indar eta denbora gutxi eskaini zien Forestek. Editore gisa ere beti geroago uzten zuen bere liburuen argitalpena, beste batzuenari urgenteago irizita beti. Horregatik ari da Hiru argitaletxea argitaratzen orain, Forest hil eta gero, hainbat hainbat lan ezezagun. «Protagonismorik ez izateko grina setatsua dago Eva-

rengan», esan zuen atzo Esther Zorrozuak.

«Forestek ez zuen inoiz ahazten idazle gisa zuen erantzukizuna», Zorrozuaren iritziz. «Tresna ahalik eta modurik egokienean erabiltzeak obsesionatzen zuen, beti helburu berari begira: egia. Literaturaz zuen kontzepzioa ez zen hala ere utilitarista. Inguruari egokitzen zitzaion beti, eta emaitza gauza bakar baten moduan ikusten zuen, formaren eta hondoren arteko bereizketak alde batera utzita».

Funtsean, «eraginkortasuna» bilatzen zuen Forestek. «*Onintze en el país de la democracia* liburuan, adibidez, gertaerak dramatizatu zituen, eta beste modu batez datu batzuen erreproduktzio hotza baino izango ez zenaren itzalei hazteko bidea eman zien. Datuak ikaragarriak ziren, jakina. Baina hurkoaren nahigabeekiko axolarik gabeak bihurtzen gara nahigabe horien kontaktak behin eta berriaz entzutearen poderioz. Horretaz ohartuta, gu iratzarri eta berriro sentitzera bultzatzeko biderik egokiena bilatu zuen Evak. Literaturaren arloan, forma zehatza bilatu zuen, kontzientziatara iritsiko zen lasterbidea».

«Eva idazle handia da, idazle gisa ezezaguna baldin bada ere, ez ikusiarena egin baldin bazaio ere,

bere obra ezkutatu egin baldin badute ere», haren alargun Alfonso Sastre idazlearen ustez. «*Operación Ogro*, adibidez, obra literario bikaina da, lekukotasun gisa duen balioak bere balio literarioa ezkutatu badu ere». *Una extraña aventura*, berriz, Foresten «obra literario osoaren alkaloide literarioa» da.

Egun bizi balitz, egungo egoera politikoarekin eta errepresio politzialaren larritzearekin oso kezkatuta egongo zen Eva Forest, Sastren ustez, baina horrek ez zuen geldiaraziko, are gogorrago lan egitera bultzatuko baizik.

Torturaren aurkako aldarria eginez amaitu zuen bere saioa Sastrek: «Madarikatuak izan zaitezte torturatzaileak! Eva Forestek ez dio inoiz utziko zuek salatzeari!».

Topasketak jardunaldietako aurreko bi saioetan, astelehenean eta asteartean, Eva Forestek editore gisa egindako lana eta Eva Foresten elkartasun adierazpen askotarikoak izan dira, hurrenez hurren, atzergai.

Editore gisa, Hiru argitaletxea sortzen eta zuzentzen egin du lan Forestek 1992az geroztik. Horixe izan du azken 15 urteetan «obrarik kutunena», Sastren ustez. Foresten elkartasuna, berriz, arlo eta leku askotara zabaltu zen bizi-rik zen artean.

«Literatura porrotera kondenatuta dagoela dirudien eremu batean barneratu zen»

SANTIAGO ALBA RICO
IDAZLEA

«Literaturaren arloan, forma zehatza bilatu zuen, kontzientziatara iritsiko zen lasterbidea»

ESTHER ZORROZUEA
IDAZLEA

«Eva idazle handia da, ez ikusiarena egin bazaio ere, bere obra ezkutatu egin badute ere»

ALFONSO SASTRE
IDAZLEA